



Jaiak gertu Urazandin





%35 eko
beherapena
denboraldiko
ehunetan.



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

Osasun gida



RPS233/13

943 366 377

San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

NATUR HOUSE

Ainara Iriondo Ansoa

GIZA ELKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

RPS 203/16

Tarbio Etebarria, 22
Eibar

677 551 850



fisio&mas

Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea

Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 953 698
www.fisio-mas.com

RPS 177/19

RPS 271/12



Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar

943 531 953
669 565 745



RPS 183/12

Uzuri
optika audio

Elgoibar

943 740 359

Deba

943 192 192

**leku
eder**
horts klinika

RPS 171/12

Elena Herrero Lobo

Aita Agirre Enparantza, 5 - Elgoibar

943 530 053

federópticos

ikus

RPS 65/07

San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734



**Galdetu
prezioak
eta gustura
erantzungo
dizugu.**

Badatoz **Santa Ana**
eta **San Bartolome** jaiak!

ZURE ENPRESA, NEGOZIO EDO
DENDAREN IZENEAN
JAIETAN BEZEROAK ZORIONDU
NAHI BADITUZU,
JARRI GUREKIN HARREMANETAN

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus



943 743 704

688 769 657

MILARBIRE

Ubitarte, 11
943 741 487
bire@milar.es

**Gure ongizate-egoera eta
bizi-kalitatea nabarmen
haziko dira kontsumoa aktibatzean,
tokiko dendetan erostea
inbertitzea baita.**

- Garbigailuak ● Roonba ●
- Tabletak ● Telefono libreak ●
- Aspiragailuak ● Ile-lehorgailuak ●
- Telebistak ● Hozkailuak ●
- Berogailuak ● Labeak ● Indukzioa ●

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez, Leire Kerexeta. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria



youtube.com/@Elgoibarrennet

Izaro Etxegibel Soraluze Euskara teknikaria

Mundu idealizatu honetan



**"Tudor arrosak
ikusten dira
leiho handietatik
etxe aurreko lorategian"**

Entzun dio ezagun bati esaten umetako lagun bat Londresen bizi dela, eta haren bisitan joan dela duela gutxi. Hemendik Bartzelonara joan omen zen laguna bizitzera gaztetan; Ingalaterrara, handik, gero. Ez duela bizitza erraza izan, aurreko bikotekideak ez zuela ondo tratatzen, hura utzi eta zoriontsu izaten hasi zela, baina. Hamalau urte dira Londresen bizi dela, mutil poloniar batekin, oso ilehoria eta guapoa.

Ezagunak ikusi du nola bizi diren han: leiho handidun etxe polit batean, laugarren pisuan; sukaldea eta egongela batera daude, piano beltza antzinako komoda baten ondoan, sabai altutik zintzilik landareak, berdeberdeak, eta Tudor arrosak ikusten dira leiho handietatik etxe aurreko lorategian. Soldata eta lan ordutegi onak dituzte biek, eta neskak multinazional bateko buru izatea lortu du, lan gogorren ondorioz, noski.

Ezagunak ez du ulertu zergatik, lagunak esan dionean aspertu egin direla hiriaz, autoen etengabeko zarataz, kutsaduraz, alde batetik bestera joateko distantzia handiak igaro behar izateaz, taberna zikin batean kafesnea 3 libera ordaintzeaz, iluntasunaz eta alboko etxebizitzan nor bizi den ez jakiteaz. Gora begiratu eta zerua gris koloreko ikusteaz, beti.

Zoriontsu dirudi bikotekidearekin, lanean ere bai, osasunez gainezka, baina argia falta zaiela esan dio, eta kanariar uharte batera joango direla bizitzera aurki. Non bizi aukeratuko omen dute lehenengo, baina inguruan lana topatu beharko dute, horren lanpostu on, finko eta asko ordaintzen dietenei uko eginda. Ezagunak ametsetan ere irudikatuko ez lukeen bizimodua dute, eta diru asko. Ez du ulertzen konfort-zonatik alde egiteko erabaki hori, idealizatzea baita "nor bait edo zerbait sentipen-errealitatetik altxatzea adimenaren edo fantasiaren bidez, egiatan ez dituen ezaugarri idealak egozte" alegia. Egiatan ez dituenak.

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Ikuspuntua

Aurreko batean bilobarekin izandako elkarrizketak jarri nau, berriz ere, ordenagailuaren aurrean. Aspaldi gure sukaldera sartu gabe zegoen eta, bat-batean, argia pizteko giltzari begira zera galdetu zidan:

- Aittita! Hori aldatu egin duzue, ezta? Lehen gorago zegoen.

- Ez, ez. Hortxe egon da beti. Zeu aldatu zara. Hazi egin zara eta horregatik ikusten duzu orain zeure parean. Lehen ez zinen iristen.

Herriko jaietan suzko erroberak edo txapligoak bota dituzte eta gorreria hurbil duen aittitta azalpenak ematen, arrabotsarekin izuturik dagoen bere bilobari: - Hauena ez da ezer, "put, put". Gure gazte denboran bai zirela zaratatsuak, "boum, boum".

Adibide egokiak dira gaur adierazi nahi dudana bideratzeko. Izan ere, dena da errelatiboa gure bizitzan. Urteak aurrera, adin batetik gora, txikitu egiten gara, defentsak ahuldu, gaitasunak murriztu. Betiko arazoak gero eta handiagoak iruditzen zaizkigu. Gaztetan, aurrera begira gaudenean, etorkizuna proiektatzen dugunean, indartsu sentitzen dugu geure burua eta, oztopoak oztopo, aurrera egiteko kemenak txiki bihurtzen ditu traba eta nekeak. Zahartzaroan, ostera, loa galarazteraino kezkutzen gaituzte eginkizun txikienek ere. Zailtasunak betiko neurria du, baina geu gara txikitzen goazenak, apurka-apurka, gero eta txikiago. Zahartzaroak berez dakarren galera. Horregatik iruditzen zaizkigu arazoak handi, irentsi nahi gaituzten mamuak balira bezala. Bilobari gertatu zitzaionaren kontrakoa, hain zuzen. Giltza gero eta gorago. Betiko arazoan aurrean geure indarrak dira neurria. Ume izan zena gai da argia pizteko eta gu, adibidez, behatzen oskolak moztu ezinik. Gaztetan dena da ikuskizun eta eginkizun, eta indarrek lagundu egiten dute. Trenean paisaia berriak ikusmiratzen doanaren antzekoa da gaztearen

animoa. Urteen joanean, ostera, berdin zaigu atzeraka bidaiatzea, iraganari begira.

Ikuspuntua sartzan da jokoan. Mundua eta gizarteko arazoak ez dira modu berean ikusten. Bakoitzak bere ikuspegi eta ikuspuntua du, bizipen ezberdinak baitira zureak eta nireak, baita pertsona berarenekin ere egoera eta adinaren arabera. Planoa ez, poligonoa da bizitza, zorionez. Sinplifikatzen badugu, pobregoa izango da.

Gogoan dut nola, gazteago nintzenez, joan ohi nintzen mendi aldera eguneroko buruhauste eta kezkak ahaztu eta, bikoiztuko banintz bezala, neure burua, txiki-txiki, han goitik ikusten saiatzen nintzen. Ariketa sana da norbere buruari barre egitea. Eiffel dorrera igo eta gorengo terrazatik han behean trafikoa zuzentzen ziharduen polizia txiki-txiki ikusi zuenaren antzera. Gero, jeitsi zenez, poliziarengana hurbildu eta - "kaixo aspaldiko!" esanda agurtu omen zuen. - "Nor zara, ba? Ez zaitut ezagutzen". - "Nik zu, ostera, txiki-txiki zinenetik". Mundu txiki bana gara gizakiok.

Izan ere, mundua eta zeure ingurua betiko leihotik ikusi eta begiratu hutsez, beste alde eta ñabardurak galdu egingo dituzu. Etxeko leihoek lau aldeetara eman beharko lukete, gure ikuspegia, mundua bezala, ahalik eta biribilena izan dadin. Jubilatuta nintzenez, kanpotik ikusten nuen nire lantegi izandakoa eta, benetan diotsuet, plano poligono bihurtu zen. Aberatsagoa eta, noski, ulertzen zailagoa. Horregatik, hain zuzen, askok beldurra dio eztabaidari, geure ikuspuntu murriztean lasaigo bizi garelako.

"No me cabe la menor duda" zenbaitzuen ahotan entzuten dudanean pena, errukia, sentitzen dut. Hala entzun nion aurreko batean, Aznar zela uste dut. - "Bai gizon txikia!" - pentsatu nuen- dudarik txikiena ere kabitzen ez. Txiste moduan gaztelaraz entzuna da: *"Era un hombre tan pequeño que no le cabía la menor duda"*. Guk kontrolatzeko baino zabalagoa eta konplexuagoa da, zorionez, errealitatea. Horregatik hartu dut dudatzeko ohitura.

A. Ugarteburu



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112



688 655 658



Zarata handia egoten da gauez

Gabriel Kurutzelaegi kalean: "Uda

hasi da eta jendeak jai giroan egoteko gogo handia dauka. Ikasleak oporretan daude, eta garai honetako gau bikainez gozatu nahi dute. Gabriel Kurutzelaegin dagoen auto aparkalekuko aulkietan elkartzen dira eta berandura arte egoten dira han, tonu altuan hizketan edo txakurrekin jolasten. Oporrak, gozatzeko eta lagunekin egoteko dira, baina jende asko oraindik lanean gaude eta goizean goiz esnatu behar izaten gara. Hori dela-eta, pertsona horiei eskatu nahi nieke, tonu baxuagoan hitz egitea, besteok ere atseden hartzeko aukera izan dezagun".



Karakate Bizirik plataformak ondorengo galderak bidali ditu

BARRENERA: Elgoibarko Udalak ba

al du asmorik tramitatzen ari den energia berriztagarrien LPSari alegaziorik egiteko eta Karakate-Irukurutzetako mendigain osoa babes eremu gisa hartzea eskatzeko? Ba al du asmorik udalerriko beste zenbait eremu ere eskusio zona izan daitezten eskatzeko? Eta, ba al du informazio berririk Green Capital enpresaren Karakateko proiektuari buruz? Udaletik ondorengo erantzun dute:

"Udalak konpromiso handiena du Karakate ingurua babesteko, eta orain arte emandako pausoek halaxe adierazten dute. HAPOak markaturikoari jarraiki, Plan Berezia idatzi genuen, eta behin betiko onartu. PTSaren aurrerapena argitaratu zenean, Udaletik iradokizunak aurkeztu genituen. Txosten sakon eta landua izan zen hori eta argi uzten zuen Udalaren nahia eta Karakate ingurua babesteko helburua. Ondoren, PTSaren lehen onarpena jaso eta Udalean aztertu ostean, Karakate inguruko gune guztia eskusio zona bezala kontsideratua izan dadin alegazioak aurkeztuko



dira. Pauso hori emateko epea uztail bukaeran amaitzen da. Momentu honetan teknikariak alegazio hauek prestatzeko lanean ari dira. Dokumentu hau era egokienean aurkezteko lan prozesua garrantzizkoa da. Behin dokumentua aurkeztutakoan, emandako pausoaren berri emateko momentuan izango gara. Bukatzeko, berriz ere adierazi nahi dugu Udalak Karakate-Irukurutzeta mendilerroaren babesarekin duen konpromisoa".



Parrokiako kanpaiak entzuteak lasaitasuna ematen du:

Parrokiako kanpaiak gauez isildu egin beharko lirakeela esaten zuen herritar batek joan zen asteko alean, eta horri erantzun nahi izan dio beste herritar batek gaur: "Parrokiako kanpaiak ez dira tortura, inondik inora.

Ni ere plazatik gertu bizi naiz, eta niri kanpaiak entzuteak lasaitasuna eta bakea ematen dit. 300 urte pasako tradizioa daukate parrokiako kanpaiak eta hori ezin da isildu. Kanpai hotsa ez da beste zarata edo burrundararekin konparagarria. Kanpaien soinua ederra da, eta ohetik entzutea, gozamenaren niretzat. Beraz, eskatu nahi nuke ez isiltzeko kanpaiak. Eskerrik asko".

Irailaren 15era arte luzatu dute Bizilabe ikastaroetan izena emateko epea

Ikasturte berrirako izena emateko epea irailaren 15era arte luzatu dute Bizilabe programaren sustatzaileek. Maiatza bukaeran zabaldu zuen Elgoibarko Udalak Robotika eta Bizilabe ikastaroetan izena emateko epea, eta bete dira dagoeneko robotika ikastaroetan parte hartzeko eskaini zituzten plaza guztiak, baina ez Bizilaben parte hartzeko eskaini zituztenak. Horregatik, Udalak epea luzatzea erabaki du.

Elgoibarko gazteen artean zientzia eta teknologiarekiko, ekintzaitzazarekiko eta sormenarekiko interesa eta motibazioa bultzatzeko sortu zuten ekimena, eta aurtengoa bosgarren ekitaldia du. Aurten, 2023ko urritik 2024ko maiatzera, 10-16 urteko gazteek tailerretan parte hartu eta proiektuak egingo dituzte, eta Elgoibarko Makina Erremintaren Museoa izango dute topaleku.



Ikasturtean zehar, esperimentu zientifiko eta teknologikoak egingo dituzte hainbat esparrutan, eta ikertzaile profesionalak zuzendutako proiektuak ere garatuko dituzte taldean.

Izena emateko nahiz ordutegiak ikuskatzeko, honako web orri honetan sartu behar da: bizilabe.elhuyar.eus/elgoibar.

24/7 plataformakoek udako etenaren aurreko elkarretaratzea egin dute



Hilero egin ohi duten moduan, elkarretaratzea egin zuten joan zen ekainaren 28an 24/7 plataformakoek. Osakidetzako murrizketak salatu zituzten berriro ere elkarretaratzera bildutakoek, eta udako oporraldiaren atarian, kezka agertu zuten oporraldiak eta bestelako murrizketek anbulatorioko zerbitzuari eragin ahalko dielakoan. Era berean, gogor kritikatu zuten Gotzone Sagardui Osasun sailburua Gasteizko osasun-pribatuko zentro baten inaugurazioan parte hartu izana.

Osakidetzak azpikontrataturako langileei babesa agertzeko kanpaina



Lan baldintza duinagoen aldeko protestan ari dira Osakidetzak azpikontrataturako garbiketa zerbitzuko 2.500 bat langile Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian, eta Mendaroko Tratu Onen Aldeko Taldetik babesa agertu diete haiei guztiei. Osakidetzak kontratatutako langileen besteko lan baldintzak izatea eskatzen dute, betetzen duten lana antzekoa delako. Tratu Onen Aldeko Taldekoak sinadurak biltzen hasi dira. Atxikimendua agertu nahi duenak Leire jantzi denda eta Morroskillon du horretarako aukera.

STEAM diziplinak eta Debabarreneko errealitate industriala erakusten ari da Debegesa ikasleei

Esualdeko errealitate industrialari eta STEAM diziplinari ikustarazteko proiektu pilotua jarri du martxan ikasleentzat Debegesak, Debabarreneko Garapen Agentziak, eta Elgoibarko ikasleak ere ari dira parte hartzen bertan. Zehazki, Elgoibar BHI Institutuko Batxilergo Teknologikoko 1. mailako sei ikaslek hartu dute parte ekimenean, eta bost industria-enpresa eta teknologia-zentro bisitatu dituzte: Ideko, Sariki, ABC, Danobat eta Soraluce.

Debegesatik jakinarazi dutenez, ekimen honen helburu nagusia estereotipoak apurtzea da, eta horretarako, goiz batean, enpresetan egiten dituzten jarduerak eta egiten dituzten lan teknikoak erakusten dizkiete ikasleei. Bisitaldi bakoitzean, profil teknikoa duen emakume batek egiten die harrera ikasleei, sektorean dauden emakumezko erreferenteak erakusteko; pertsona horrek bere lanpostua zertan datzan azaltzen die ikasleei, bai eta errealitate industrialari buruzko ikuspegi orokorragoa izateko xehetasunak ere, beharginek betetzen dituzten eginkizunen eta zereginen berri izan dezaten, eta lanbide-profil



hori garatzeko zer prestakuntza behar den argi izan dezaten. "Helburua da neskek etorkizuneko aukera profesionala STEAMekin zerikusia duten lanpostuen ezagutzatik abiatuta egitea, eta, gainera, sektoreko emakume profesionalen eskutik, emakumezko erreferenteak izateko", esan du Elena Alonsok, Debegesako Enplegu eta Gizarte Berrikuntza Saileko arduradunak.

Fideltasun kanpaina hasi du Txankakua Merkatarien Elkarteak

Joan zen zapatuan hasi zuen kanpaina Txankakua eta hilaren 31ra arte, bezeroek Merkatarien Elkartearen txartelarekin egiten duten lehenengo erosketagatik botila bat jasoko dute opari (botilak agortu arte). Txankakuatik jakinarazi dute doan egiten dela txartela eta ez dagoela bankuz aldatu beharrik egiteko.

Era berean, txartel horri esker bezeroak hiru hilabeteko epea dauka ordaintzeko, inolako interesik gabe.

Kanpainak Udalaren, Jaurlaritzako, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren eta Nafarroako Rural Kutxaren laguntza izan du.

Udako ordutegia hasi dute Elgoibarko eta Mendaroko liburutegietan

Elgoibarko eta Mendaroko udal liburutegiek udako ordutegia dute astelehenaz gozotik. Goizez lan egingo dute bietan abuztura bitartekoan. Elgoibarko liburutegiaren ordutegia 08:00etatik 14:00ak artekoa izango da, eta Mendaron, berriz, 10:30etik 13:00ak arte izango dute liburutegia zabalik. Abuztuan itxita egongo dira biak.



Ludoteka berria egiteko lanei berrekin diete

Elgoibarko Udalak ludoteka berria egiteko lanei ekin die berriro. Construcciones Aplibur S.L. enpresari esleitu zitzaion proiektua, eta 2022ko martxoan hasi zituzten obrak, baina lokalari berari eragiten zioten komunitateko arazoengatik obra geldiarazi behar izan zuten. Lanaren %51 egina zegoen arren, enpresak obrarekin ez jarraitzea erabaki zuen, eta egoera horren aurrean, Udalak gainerako lanak lizitatzea erabaki zuen, proiektua amaitzeko. Goki Erreformak S.L. enpresaren esku dago orain ludotetako obra. Proiektuan lokala egokitzeko beharrezkoak diren obra guztiak jasotzen dira, instalazio-lanak, espazioen banaketa eta ingurutzaila hobetzea barne. Era berean, egungo ludotekan eskaintzen diren egungo espazioak mantenduko dira, hala nola, ataria, harrera, mahai-jokoen gela, hezitzaileen gela, erabilera askotariko gela, tailerra, komunak eta biltegia. Maialen Gurrutxaga Elgoibarko



alkatea pozik agertu da obrei berriro ekiteagatik, eta ludoteka berria lehenbailehen irekitzearen garrantzia nabarmendu du.

Ludoteka berria San Inazio kaleko 9. zenbakian dago (Bolatokian), eta 173,79 m² erabilgarri ditu. Kokapen berri honekin, Udalak espazioa dinamizatu eta ludoteka udalerraren erdigunera hurbildu nahi du, herritar guztientzat irisgarria izan dadin.

Uztailaren 14an amaituko da Lila Sarietarako hautagaiak aurkezteko epea

Elgoibarren emakumeen eta gizonen arteko eskubide eta aukera berdintasuna sustatzen lagundu duten eta horretan nabarmendu diren pertsonak edota erakundeak egindako lana publikoki aitortzeko sortu zuten Lila Saria iaz. Bigarren edizioa egingo dute aurten, eta uztailaren 14ra arteko epea dago hautagaiak aurkezteko.

Elgoibarko edozein erakunde edo pertsona fisikok aurkeztu ditzakete hautagaiak ondorengo loturan sartuta: labur.eus/lilasaria2023. Epaimahaia Lilaren Mahaiko hiru kidek, Berdintasun Saileko teknikariak, Berdintasun Saileko arduradunak eta alkateak osatuko dute, eta saridunak oroigarri bat eta 500 euroko saria jasoko ditu.

Greban dauden kiroldegiko monitore eta soro-sleen aldeko manifestazioa egingo dute uztailaren 12an



ELA sindikatuak manifestaziora deitu ditu herritarrak, greban dauden kiroldegiko monitore eta soro-sleen alde. Apirilaren 20an hasi zuten greba BPXport soro-sle eta monitoreek, eta orduz geroztik hainbat lanera itzuli diren arren, batzuek greban jarraitzen dute. Udalarari eta BPXport enpresari irtenbidea eskatzeko antolatu dute manifestazioa. Eguaztenean izango da. 11:30ean hasiko da Olaizaga kiroldegian bertan, eta Debabarreneko ELAko delegatuak bertan izango direla aurreratu dute ELAtik. Herritarrei dei egin diete, babesa ematera joan daitezten.



JANIRE RODRIGUEZ DE GABRIEL

'Ilunpetik argira' dokumentalaren
egileetako bat

✍️ Ainhoa Andonegi

'Ilunpetik argira' dokumentala emango dute uztailaren 22an Maalako parkean, 'Kultura ilargipean' egitasmoaren barruan. Verdini dantza taldeari buruzko dokumentala da. Aniztasun funtzionala dute taldeko dantzariak, Down sindromea gehienek, eta haietzako propio sortutako taldea da. Janire Rodriguez De Gabriel (Elgoibar, 2000) da dokumentalaren sortzaileetako bat. Ikus-entzunezko komunikazioa ikasi zuen Mondragon Unibertsitatean, eta ikasketa amaierako proiektuaren barruan sortu zuen dokumentala, beste bi ikaskiderekin batera. Elgoibarko proiektioaren ostean, Verdini taldeak berak dantzaldia egingo du zuzenean, Maalako parkeko oholtzan.

“Aniztasun funtzionala dutenei dantzarako aukera emateko asko egin du Verdini taldeak”

'Ilunpetik argira' dokumentala sortu duzu beste bi ikaskiderekin. Nola iritsi zitzaizuen dokumental hori egiteko aukera?

Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi dut Mondragon Unibertsitatean, eta ikasketa amaierako proiektuaren barruan eskatu ziguten elkarteren bati buruzko ikus-entzunezko bat egitea. Taldekideek eta nik Verdini dantza taldeari buruzko dokumentala egitea erabaki genuen. Albisteen bidez ezagutu genuen Verdini taldea, eta oso interesgarria iruditu zitzaigun. Sariren bat jaso zuen, eta komunikabideen bidez izan genuen taldearen berri. Gai sozial bat landu nahi genuen, eta hau oso polita iruditu zitzaigun. Historia luzeko taldea da, eta sortzeko arrazoia ere sentimenduz beterik dago. Isabel Verdini dantzariak sortu zuen bere iloba Down sindromearekin jaio zenean, eta ordutik asko egin du aniztasun funtzionala duten pertsonen dantzarako aukera emateko. Guri oso barrura iritsi zitzaigun gaia. Oso garrantzitsua

da guk ditugun aukerak eskaintzea aniztasun funtzionala duten pertsonen baina ez da erraza. Aukera hori emateko taldeak sortu egin behar dira, ez daudelako. Guk dauzkagun aukera berberak eurei eman ahal izateko lan egitea sekulakoa da.

Zer jasotzen du dokumentalak?

Verdini taldea barrutik ezagutzeko aukera ematen du dokumentalak. Urtebetez egon gara beraiekin lanean, eta hainbat grabazio egin dizkiegu. Entseguak grabatu ditugu, zuzeneko saioak, dantzariak elkarriketak egin dizkiegu... Kanpotik ikusten dena nahiko azalekoa izaten da, eta guk barrutik erakutsi nahi izan dugu dantza taldea. Nola egiten duten lan, zein den beraien helburua, nola sortu zen taldea... Azken batean beraien historia jaso dugu. Esan behar dut baita ere taldekideek izugarri lagundu digutela. Ez digute inolako trabarik jarri gure lana egiteko, eta hasieratik elkarlanerako prest egon dira; taldeko



hartu gintuzten hasieratik eta oso eroso sentitu gara beraiekin lanean. Zalantzak geneuzkan dokumentala, bideoklipa edo zer egin, eta beraiek ez digute inoiz mugarik jarri ezertarako. Antzinako materiala ere eman digute, eta taldearen historia azaltzeko oso ondo etorri zaigu. 17 minutuko dokumentala egin dugu azkenean.

Nolakoa izan da zuen lana?

Errespetuz lan egitea da gakoa. Askok uste dute Down sindromea duten pertsonak oso umeak direla, infantilak, eta horregatik ez dituzte behar bezala tratatzen. Nik gertu daukat aniztasun funtzionala duen pertsona bat, eta argi daukat aurritzirik gabe joan behar dela horrelako pertsonengana. Nire nebak autismoa dauka, eta Nuala elkarteko kidea da. Nualak ere lan handia egiten du aniztasun funtzionala dutenei espazio bat emateko. Denak dira desberdinak eta bakoitza modu batean tratatu behar da, gu bezala. Askotan gehiago erakusten digute haiek guri, guk haiei baino. Ordu asko eman ditugu beraiekin, kideak ezagutu ditugu eta gauza asko konpartitu ditugu. Ez genuen grabatu eta alde egiten. Oso ondo pentsatzen genuen zer grabatu, nola hartu irudiak, nola atera argazkiak... Harreman ona eduki dugu uneoro. Abendutik ekainera bitartean egon ginen beraiekin lanean, eta gauza asko ikasi genituen.

Nola deskribatuko zenuke Verdini Taldea? Zer da zuretzat Verdini?

Galdera horrentzat bakoitzak bere erantzuna

"Dokumentalean erakusten duguna ondoren zuzenean ikusteko aukera egongo da Verdini taldearen emanaldian. Seguru nago jendeari asko gustatuko zaiola"

dauka. Guk askotan egin dugu galdera hori. Mondragon Unibertsitateak antolatzen duen Kimu Berri lehiaketan hartu genuen parte, eta han aurkezpen original bat egiteko eskatu ziguten. Egin genuen galderetako bat hori izan zen, zer zen Verdini taldea, eta konturatu ginen erantzun pila bat zeudela. Verdini ez da gauza bat, mila gauza dira. Niretzako Verdini taldea hotzikara bat da, ikusten dudana bakoitzean sekulako hotzikarak sortzen dizkidalako. Baina familia bat ere bada, taldelana... gauza asko dira.

Zer ikusiko dugu Elgoibarren?

Lehenengo dokumentala ikusiko dugu, eta horrekin Verdini taldea ezagutuko dugu. Dokumentalaren ondoren Verdini taldearen dantza emanaldia antolatu izana sekulakoa iruditu zait. Dokumentalean erakusten duguna zuzenean ikusteko aukera egongo da gero eta seguru nago jendeari asko gustatuko zaiola. Grabazioak egiteko emanaldi eta entsegu asko

ikusit datur, eta emanaldi guztiak desberdinak ziren, beti egoten zen sorpresaren bat; inoiz ez ditut bi saio berdinean ikusi. Beti ziren sorpresa onak eta politak, Verdini taldeak bihotzetik dantza egiten duela, sentimenduz. Oso pozik nago dokumentala Elgoibarren emango dutelako, eta elgoibartarrek aukera izango dutelako Verdini taldea ezagutzeko. Joaten dena ez da damutuko. Sentimendu asko pizten dira ikuskizun honekin, oso hunkigarria izango da eta jendeari hausnartzeko aukera ere emango dio.

Zer asmo duzue aurrerantzean dokumental honekin?

Herrietan aurkeztea gustatuko litzaiguke. Ez genuen nahi guretzako bakarrik geratzea ikusentzunezko hau; garrantzitsua iruditzen zaigu herritarrei erakustea. Horrez gain laburmetrai edo dokumentalen jaialdietara eta lehiaketetara aurkeztea ere gustatuko litzaiguke. Horregatik ez dugu publiko jarri inon gure lana, bestela ezingo genukeelako inora aurkeztu. Oso pozik gaude dokumentalarekin, erantzun ona izan du eta lan polita egin dugulakoan gaude.

Verdini Dantza Taldea



Verdini Dantza Taldea 1992an sortu zuen Isabel Verdini dantzariak (Donostia, 1971). Bartzelonan dantza ikasketak egiten ari zela bere iloba Haizea jaio zen Down sindromearekin, eta hari etorkizunerako aukera bat emateko helburuarekin sortu zuen taldea. *Kultura Ilargipean* egitasmoaren aurkezpenean azaldu zuen Verdini berak: "Kolpe gogorra izan zen guretzat iloba Down sindromearekin jaio izana, baina une hartan bertan ahizpari esan nion lasai egoteko, Haizea dantzaria izango zela, izaba bezala". Dantza garaikidea eta modernoa egiten dituzte. Sortu, amestu eta sinistu egiten du

Verdini taldeak, eta bihotzetik dantza egiten dute. 24 eta 40 urte bitarteko 13 dantzari osatzen dute taldea, eta horietako bederatzik Down sindromea daukate. "Familia" bat dira, eta hala bizi dute taldea. Aniztasun funtzionala bistaratu eta ikusgarri egitea da taldearen helburua. Horretarako, Maalako parkea gune oso aproposa dela azaldu dute, herritarren bista-bistan dagoelako".

Emozioak, sentimenduak eta teknikak bat egingo dute uztailearen 22an Maalan. Orain arteko koreografiarik onenak aukeratu dituzte Elgoibarrerako, eta "magia" egingo dute eszenatokian.

■ Lau eguneko garagardo azoka solidarioa antolatu dute Mendaron bigarren urtez

✍️ Ainara Argoitia

'Zerua eta garia' izena eman zioten iaz, eta 'Bizitzaren erronkak' izango du aurten, baina funtsean gauza bera izango da: lau eguneko garagardo azoka solidarioa. Ukrainari laguntzen ari diren elkarteentzat ahalik eta diru gehien biltzeko antolatu zuten iaz (ordukoa da argazkia), eta aurten, berriz, bularreko minbiziaren ikerkuntzara bideratuko dute biltzen duten dirua. Uztailaren 13, 14, 15 eta 16rako antolatu dute azoka, Udalaren eta herriko zenbait eragileren laguntzarekin eta hainbat enpresa eta saltokiren babesarekin, eta boluntario taldea jardungo da lanean. Baina nabarmendu dute laguntzeko modu asko daudela, eta azokara joatea eta antolatu dituzten ekintzetan parte hartzea ere oso lagungarri izango zaiela.

Astebete eskas falta da Mendaroko garagardo azoka solidarioarako eta non-nahi ikus daitezke kartelak. Lau eguneko egitaraua antolatu dute, eta zabalduko dituzte ekintzak herriko gune ezberdinetara, baina azokak frontoian izango du gune zentrala. Han atonduko dute otorduarentzako lekua, egunero berrehundik gora laguni bazkaltzen eta afaltzen emateko (14:00etatik 17:00etara bazkariak eta 20:30etik 00:00etara afariak).

LAU EGUN, HAMAIIKA EKINTZA

Egun bakoitzari ukitu berezia ematen saiatu dira antolatzaileak. Minbizi ikertzen ari diren ikertzaileen lana eta gaixoei nahiz haien etxekoei laguntzen ari diren elkarten egitekoa ezagutarazteko eguna izango da uztailaren



13a (eguna). Azokan bilduko den dirua jasoko dute Biodonostiako ikertzaile taldekoak eta bost elkartetako ordezkariak etorriko dira: Bularreko Minbizi Metastasikoa Elkarteak, Asgicer, Katxalin, Iñurri eta Minbiziaren Aurka Gipuzkoan. San Agustin kulturgunean izango da solasaldia, 18:00etatik aurrera.

Bigarren eguna, enpresetako jendearentzat prestatu dute propio. Antolatzaileek uste dute uda aurreko bazkariak egiteko aukera paregabea dela enpresetakoentzat eta zehaztu dute herriko eta inguruko enpresa ezagun batzuek eman dutela izena dagoeneko bazkaritarako edo lagundu dutela diruz ekimena. Bazkalostean, zezen mekanikoa eta musika izango dituzte, eta gau horretan ere egongo da frontoian afaltzeko aukera.

Uztailaren 15a, zapatua, da beharbada ekintzaz beteena datorrena. Herriko jubilatutako talde batek antolatu duen ordubete inguruko ibilaldiarekin hasiko dute eguna, eta xakea, haurrentzako tailerrak, body combat eta Sh'Ban saioa eta gehiago izango dira aukeran. Gaur, berriz, erromeria, Bada Giroekin. Eta domekari euskal ukitu berezia emango dio In Leike elkarteak. Plazan Dantzan erromeria, kantu bazkaria eta bertso afaria lotu



ditu egun horretarako, azokaren baitan. Horrekin batera, euskal jantzien erakusketa ere zabalduko dute bi herritarrek jubilatuen ondoko lokalean, Haritz EDTren eta Gloria Sukia jostun debarraren laguntzarekin. Lau egunez egongo da zabalik.

GARAGARDO AZOKETAKO MENUA

Osteguneko afaritarako menua berezia izango da, Ukrainako jatekoa zerbitzatuko dutelako, baina gainerako egunetako menua ohikoa izango da, bazkaltzeko zein afaltzeko: txerri ukondoa (12,50 euro), saltxitxak (8,50 euro), eta oilasko izterrak (11,50 euro), eta prezio horietan sartuta egongo dira kafea eta Mendaroko Galletiak gozongintzakoek prestatutako azkeburukoa ere. Horrez gain, patata fijituen errazioa ere salduko dute, 3 euroan.

Bariku eguerdian, baina, menu itxia zerbitzatuko dute, 29,50 euroan: Vermout dastaketa, ukondo errea, oilasko izterrak edo saltxitxak, postrea, kafea eta konbinatua. 2,50 euro gehiagogatik Gabonetako loteria hartzeko aukera ere egongo da (1,5 euro minbiziaren ikerketarako izango da). Azokan garagardoa hartu nahi duenak pitxerra erosi beharko du frontoira sartu aurretik, 2 euro ordainduta ■

UZTAILAK 13, EGUENA:

18:00-20:00 Bizitzako Erronkak proiektuaren eta bularreko minbizia dutenei laguntzeko elkarteen aurkezpena, San Agustinen.

18:00-20:00 Haurrentzako tailerrak, Garagartzan (euria egingo balu, Gaztelekuan).

20:30-22:00 Ukrainako afari berezia, frontoian
22:00 Mendaroko txokolate dastaketa, frontoian.

UZTAILAK 14, BARIKUA

09:30-12:30 Gailetak egiteko tailerra haurrentzat, Galletiak-en eskutik.

14:00-17:00 Enpresa bazkariak, frontoian.

18:00-20:00 Zezen mekanikoa, Herriko Enparantzan. DJ Estherrek girotuko du.

20:30-23:30 Afaria, frontoian.

23:30 Oraiko Remember. Dj Esther, Uztargiko terrazan.

UZTAILAK 15, ZAPATUA

10:00-11:00 Ordubete inguruko ibilaldia Mendaro ingurua ezagutzeko.

11:00-13:00 Body combat eta SH'Bam dantza ekitaldiak, Herriko Enparantzan, TX4Fitness gimasiokoen eskutik.

11:00-13:00 Xake jardunaldia eta Catan txapelketa, Herriko Enparantzan.

11:00-13:00 Ukrainako eskulanak egiteko tailerra haurrentzat, jubilatuen lokalean.

14:00-16:00 Bazkaria, frontoian.

20:00-23:00 Afaria, frontoian.

23:00-01:00 Bada Giroekin erromeria, frontoian

01:00 Gaueko jaia, Ormola tabernan.

UZTAILAK 16, DOMEKA

09:30-11:30 Nesken futbol partidak, plazan.

12:00-14:00 In Leike elkarteak antolatuta, Plazan Dantzan ekitaldia, Ingumarekin.

14:30-17:30 Kantu bazkaria, frontoian, In Leikek antolatuta.

17:30-20:30 Triki poteoa auzoz auzo.

20:30-22:00 Bertso afaria, frontoian. Iker Zubeldia eta Julio Soto bertsolariekin.

OHARRA: Otorduetaarako erreserbak egiteko frontoian bertan edo 943 030 150 telefonoan.



Maria Muñoz Caffarel (eskumatik hasita bigarrena) bere lantaldearekin.

■ ■ *Beldurra galdu behar diogu minbiziari* ■ ■

MARIA MUÑOZ CAFFAREL

Ikerbasqueko ikertzailea Donostiako
Biodonostia Osasun Ikerketako Institutuan

✍️ Ainara Argoitia

Mendaroko garagardo azokan batzen den dirua jasoko duen ikertzaile taldeko buruetako bat da Maria Muñoz Caffarel (Madril, 1980). Ikerbasqueko ikertzailea da eta Biodonostia Osasun Ikerketako Institutuan egiten du lan, bularreko minbizia ikertzen. Minbizia naturalizatzea derrigorra dela dio, eta asmo horrekin etorriko da Mendarora.

Hilaren 13an, garagardo azokaren hasierako ekitaldian parte hartuko duzu (San Agustin kulturgunean, 18:00etan). Zer asmorekin zatoz?

Minbiziaren gaia gizarteratzeko asmoz goaz Mendarora. Minbizia hitza gero eta sarriago entzuten dugu tamalez, eta entzute hutsak ikara eragiten digu oraindik, baina egiaz, askok ez dakite minbizia zer den. Askok uste dute minbizi onak eta txarrak daudela eta bularreko minbizia dela onetako bat. Eta egia da badaudela heriotzatas handiagoa duten minbiziak, pankreakoa

eta giblekoa, esaterako, baina minbizi onak eta txarrak dauden uste hori ez da zuzena. Horregatik iruditzen zaigu beharrezkoa minbizia bera zer den azaltzea, bai eta guk hemen zertan dihardugun kontatzea ere. Hogeitabat minutuko aurkezpena egitea daukagu aurreikusita eta gure ondoren elkarte bakoitzeko ordezkariak bost bat minutuko tartea izango dute zertan ari diren azaltzeko.

Egin dezagun argazki bat. Zenbatekoa da prebalentzia?

Ez naiz epidemiologoa, ezta estatistikaria ere, eta ezin dizkizut Gipuzkoako datuak eman, baina esan dezakeguna da zortzi emakumetik batek bularreko minbizia izango duela bere bizitzan, eta kasuen %70ean sendatu egingo direla. Gaur egun sendaezintzat jotzen dena bularreko minbizi metastasikoa da. Hori da gure drama, eta horregatik hori ikertzera bideratu ditugu indarrak.

Zeri esaten diogu bularreko minbizi metastasikoa?

Bularreko minbiziak bularrean du beti sorburua, baina gaixotasunak pronostiko ona duenean eta gaixoak bizitzeko aukera handiak dituela esaten dugunean bularreko minbizi lokalizatuak ari ohi gara. Baina, gertatzen da, batzuetan, zelula kantzerigeno horiek bularraz harandiko

beste ehun edo organo batzuetara zabaltzen direla eta horri esaten diogu bularreko minbizi metastasikoa. Zelula horiek zabaldu daitezke hezurretara, biriketara, burmuinera, gibelera edo beste norabait, eta horrentzako, gaur gaurkoz, ez daukagu sendabiderik. Hala ere, esan beharra dago bularreko minbizi metastasikoarekin ere urte asko bizi daitezkeela zenbait gaixo. Egia da hor ere, mailak daudela. Adibidez burmuinera zabaldu den bularreko minbizi metastasikoa hezurrera zabaldu den bat baino gogorragoa da. Baina nik uste dut kontzeptu hori ondo barneratu behar dugula: bularreko minbizia, lokalizatuta dagoenean, sendatzeko aukera handia dago, kirurgia eta erradioterapia erabilita edota kimioterapia erabilita, baina arazoa zelula horiek zabaldu direnean izaten dugu. Eta gerta daiteke diagnostikoa dugunerako zelula horiek zabalduta egotea edo gerta daiteke baita ere bularreko minbizia gainditu eta handik urte askotara beste ehun batzuetan agertzea zelula horiek.

Zertarako izango da Mendaron bilduko duten dirua?

Bularreko minbizi metastasikoa ikertzeko erabiliko dugu diru hori, bularreko minbizi metastasikoaren aurkako immunoterapia berri baten ikerketarako, zehatzago esanda.

Immunitate-sistemaren aktibazioan datzan terapia biologikoari esaten diogu immunoterapia. Immunitate-sistemak babesten gaitu kanpoko erasotzaileengatik -birus, bakterio...- nahiz gure gorputzak berak sortutakoetatik, esaterako minbizitik. Hildako jendearengan ikusi dugu minbizi kasu asko ez direla detektatzen immunitate-sistemak kontrolatu ahal izan dituelako. Orain arte, eta urte askoan, zelula kantzerigenoei eraso izan diegu beti, kimioterapia erabilita edo terapia bideratuagoak erabilita, baina immunoterapiaren bidez lortu nahi duguna da erdi loan gelditu den immunitate-sistema hori berriz hezte, tumorearen aurka egiteko esna dadin. Eta Mendaron batzen den diruarekin lagunduko dugun proiektuak CARTgel izena du zehazki.

Zertan datza?

Bularreko minbizirako immunoterapia berriak garatzea da proiektuaren ardatza. Zehazki, CAR-T terapia berriak garatu nahi

"Zortzi emakumetik batek izango du noizbait bularreko minbizia, baina kasuen %70 sendatu egingo dira. Bularreko minbizi metastasikoa da orain gure drama"

ditugu bularreko minbizirako. CAR-T terapiak erakutsi dute oso eraginkorrak direla tumore hematologikoak tratatzeko, eta ospitaleetan hasita daude erabiltzen [CAR akronimoak *chimeric antigen receptor* esan nahi du, hau da, antigeno-erzeptore kimerikoa. Hori egiteko, pazienteari immunitate-sistemako zelula batzuk ateratzen zaizkio. Normalean T zelulak izaten dira; horrenbestez, CAR-T terapia deitzen zaio]. Hala ere, tumore solidoen kasuan, hala nola bularreko minbiziaren kasuan, zailtasunak dauzkagu CAR-T terapiak erabiltzeko, eta horri gehitu behar zaio zelulek tumore-ehunean sartzeko duten zailtasuna eta pazienteari transferitutako zelula kopuru handiaren ondorioz sortzen den toxikotasun maila handia. CARTgel-en, beraz, gure helburua material berrietan (hidrogelak) oinarritutako teknologia berriak garatzea da, CAR-T zelulak denbora luzeagoan askatzea ahalbidetzeko. Modu horretan errazago izango genuke tumorera iristea eta zitokinei lotutako toxikotasuna apalagoa litzateke.

Immunoterapia horiek ez dira, baina, bestelako terapiak eraginik izan ez duten kasuetarako bakarrik, ezta?

Ez. Bularreko minbizi lokalizatuetan ere ari dira aplikatzen immunoterapiak. Beste terapia bat da.

Zenbat lagun ari zarete proiektu honetan lanean?

Hogeiren bat lagun izango gara guztira Bionostian, bi talde. Taldeetako bat, bularreko minbiziaren taldea, nik zuzentzen dut eta beste taldea, bioingeniaritza eta minbizia taldea, Amaia Zipitriak. Gure taldeak minbizia eta immunitate-sistema nola erregulatzen diren aztertzen du batik bat eta Amaiaren taldeak biomaterialetan duen ezagutza gehitzen du. Diziiplina anitzeko taldea da dena den gurea, eta

EHUko eta CIC Bioguneko beste jende bat ere ari da gurekin.

Onkologian ematen ari diren aurrerapenak immunoterapien bidetik ari dira ematen hortaz?

Bai, immunoterapien bidetik eta medikuntza pertsonalizatua deitzen dugunaren bidetik. 2018ko Nobel Saria irabazi zuen immunoterapiaren ikerketak [James P. Allison eta Tasuku Honjo ikertzaileek jaso zuten. Nobel Sarien erakundeak nabarmendu zuen garatu zuten metodoa iraultzailea zela, immunitate-sistemak berak minbizi-zelulei aurre egiteko erabiltzen duen sistema baliatzen zuelako, minbizi-zelulak zuzenean suntsitzen saiatu beharrean]. Medikuntza pertsonalizatua esaten dugunean, berriz, ari gara esaten minbizi bat minbizi askoren batura dela. Hau da, bularreko minbiziaz ez du berez inolako zerikusirik sarkoma batekin edo burmuineko edo odoleko minbizi batekin adibidez, baina minbizia izen bat da, eta bularreko minbizia duenari ere komeni zaio jakitea zeintzuk abizen dituen bere minbizi horrek, tumore horren kontrako terapiarik eraginkorrenarekin asmatzeko.

Abizenak jakin behar direla diozu, baina izena entzuteak berak ematen du atzerakoa.

Bai, jakina. Gurean ere minbiziak hil zuen aita, baina amak eta amaginarrebak ere izan zuten, eta biak bizi dira. Beldurra galdu behar diogu minbizia hitzari. Bularreko minbiziaren intzidentzia handitzen ari da azken urteotan Euskadin, munduko gainerako lurraldeetan bezala, biztanleriaren zahartzearen ondorioz, bai eta diagnostiko goiztiarragoak egiten direlako orain. Gaur egun, ez gara diferiaz edo koleraz hiltzen. Zahartzearekin estuki lotutako gaitza da minbizia, eta esaten dute hiru lagunetik batek izango dugula noizbait. Bi mezu zabaldu behar direla uste dut. Batetik: errespetua izan behar diogula, baina beldurrik ez, minbiziaren kontrako tratamenduak ikaragarri hobetu direlako azkeneko hogeita hamar bat urtean. Orain, tratamenduak espezifikagoak dira eta askoz albo ondorio gutxiago dituzte. Bestetik: ezinbestekoa dela ikerkuntzan inbertitzea. Minbiziaz hitz egitea da egin dezakegun beste gauza on bat. Duela gutxira arte, minbiziaz hiltzen ziren ezagunen inguruko albisteetan "gaixotasun luze baten ondorioz hil da" eta halakoak irakurtzen genituen. Gaitza ezkutatzeko joera handia zegoen; derrigorra da, baina, minbizia naturalizatzea.

Aipatu beharko genuke beraz minbizia dutenei eta haien gertukoei laguntzeko ditugun elkarteek egiten duten lana. Zer duzu esateko haiei buruz?

Ni oso pozik nago Donostian lan egiteaz, hemen harreman oso gertukoa dugulako elkarteekin eta gaixoekin. Elkarte horietan aurpegia jartzen diote gaixoei ez daitezen zenbaki huts izan, eta ahal duten guztia egiten dute gaixoen bizi-kalitatea hobetzeko. Baina batez ere, minbiziaz hitz egiten dute, eta hori oso da garrantzitsua.

Oraindik ere hiltzen da jendea bularreko minbiziaz, baina heriotza-tasa txikitzen ari da. Esan al dezakegu urte batzuen buruan inor ez dela hilko bularreko minbiziaz?

Politikariek erantzungo liokete beharbada galdera horri, baina zientzialari batek, nekez. Gure itxaropena da urte batzuen buruan -zenbat ez dakit- bularreko minbizia kronifikatzea.

Hitz egin dezagun prebentzioaz hortaz.

Prebentzioa ezinbestekoa da. Diagnostiko goiztiarreko kanpainei dagokionez esango nuke pribilegiatuak garela beste herrialde batzuetan dutenarekin alderatuz gero eta aprobetxatu behar dugula hori. Zerbixeko, koloneko eta bularreko minbizirako kanpaina oso onak dauzkagu hemen; halakorik ez duten herrialdeetan heriotza-tasa askoz da handiagoa. Irakurleei esango nieke joateko medikuarenera probaren bat egiteko deitzen dieten aldiro, dieta osasuntsu bat jarraitzeko eta mantentzeko aktibo. Badago jendea kanpaina hauek kritikatzin dituen eta esaten duena aurretik hasi beharko lirakeela egiten, baina gauza guzti hauek datuetan oinarrituta erabakitzen dira eta ikusita dago adina aurreratzeak ez duela, epe luzera, biziraupena hobetzen.

Diagnostikoa jaso dutenei zer esango zenieke? Nola saiatu behar dira hartzen?

Ez du erantzun erraza, baina esango nieke sinisteko zientzian, informatzeko, eskatzeko laguntza behar duten aldiro eta baimentzeko beren buruei egun txarrak izatea ere, prozesua luzea delako. Beldurra gure giza kondizioari lotutako zerbait da, baina ahalegina egin behar dugu zientzia ulertzen ■

Kartutxo taldeak irabazi du Futbol 7 txapelketa



Emozio handikoak izan ziren ekainaren 29an Mintxetan jokatu zituzten Elgoibarko Futbol 7 txapelketako azken bi partidak, Conference eta Champions mailetakoko finalak. Giro paregabea izan zen harmailetan. Lehenik, Champions mailako 3. eta 4. postuak erabakitzeko partida jokatu zuten La Rula eta Wonga taldeek, eta 1-4 irabazi zuen Wongak. Ondoren, Conference mailako finala jokatu zuten Garito eta Layeka taldeek.

Multzotako lehia sailkatzerik lortu ez zuten taldeek jokatu dute Conference txapelketa. Emozioz beteriko finala jokatu zuten bi taldeek eta hiruna berdinduta amaitu zuten arauzko denbora. Penaltietan askoz hobeto moldatu ziren Garito taldekoak eta atezaina, eta txapelketa poltsikoratu zuten. Champions mailako finalean, Roketxe eta Kartutxo taldeek berdinetik berdinerara jokatu zuten. Kartutxokoak 2-0 aurreratu ziren arren, partida berdindu zuten Roketxeoek lehen zatia hondarrean. Bigarren zatian bi gol gehiago sartu zituen Kartutxok, eta 2-4 irabazi zuten finala. Hemeretzita talde aritu dira lehia maiatzaren 29an hasi zuten Elgoibarko Futbol 7 txapelketan. Txapelketako lehen bi asteetan lau multzotan banatuta aritu ziren lehia taldeak, eta multzo bakoitzeko lehen biak sailkatu ziren Champions deitu dioten txapelketarako. Aldiz, multzoko 3. eta 4. sailkatuek Conference izeneko txapelketan jarraitu zuten lehia. Argahiago eta bideoa: barren.eus (👤 Asier Orbea).



Kartutxo taldea



Garito taldea

Iraolagoitia txapeldun eta Lariz txapeldunorde Green Series txapelketan

Green Series XCO mendi bizikleta txapelketako zortzigarren lasterketa, azkenekoa, jokatu zuten domekan Zallan, eta sailkapeneko aurreneko postuetan bukatu dute zirkuitua Azibar Iraolagoitia mendarorak eta Iñigo Lariz eta Iker Beristain elgoibartarrek. Master 50-60 kategorian, jokaturako zortzi lasterketatik bi irabazi ditu Iraolagoitiak, Lezamakoa eta Ortuellakoa, eta birritan izan da txapeldunorde, Bilboko eta Abadiñoako probetan; eta, hiru alditan izan da hirugarren (Mena, Berriz eta Zalla). Guztira 1.330 puntu batu ditu, bere kategorian bigarren egin duen Ramon Ruizek baino 30 puntu gehiago. Master 40 kategorian, berriz, txapeldunorde izan da Iñigo Lariz. Gobike taldeko txirriindulariak ere erregulartasun handia erakutsi du prestigio handiko btt txapelketa honetan. Bi proba irabazi ditu, Lezamakoa eta Ortuellakoa, eta lau bider izan da bigarren: Abadiñoan, Berrizen, Barakaldon eta



Zallan. Halere, ez da nahikoa izan bere kategoriako lehen postua eskuratzeko. 45 puntu gehiago batu baititu Jonathan Larrañaga irabazleak. Azkenik, 23 urtez azpikoen kategorian lehiatu da Iker Beristain (Elgoibarko Lagun taldea) eta sailkapen nagusiko laugarren postua lortu du. Ortuellako lasterketan lortu zuen laugarren postua eta Abadiñoan eta Barakaldon eskuratu zituen bosgarren postuak izan dira bere emaitzarik onenak.

Zehaztu dira Mendaroko futbito txapelketako finalerdiak

Zortzi taldek eman zuten izena Mendaroko Gazte Asanbladak antolatutako futbito txapelketarako eta dagoeneko zehaztu dira zeintzuk lau taldek jokatuko dituzten finalerdiak. Finalerdietako batean Birritaka talde mutrikuarra eta Ormola talde mendarorra lehiatuko dira, eta beste finalerdian Mendaroko beste bi taldek neurtuko dituzte indarrak: Txahalak eta Morangas taldeek. Finalerdiak bi partidatara jokatuko dituzte. Orain arteko partida guztiak zapatu goizetan jokatu dituzte, baina asteburuan sanferminak direla-eta, finalurrekoetako joaneko partida



eguztenean jokatu zuten, eta itzulikoak, hilaren 15ean jokatuko dituzte. Hilaren 15eko lehenengo partida, Birritaka eta Ormola taldeen artekoa, 10:15ean hasiko da, eta bigarrena, Txahalak eta Morangasen artekoa, 11:15ean. Final handia, berriz, uztailearen 22an jokatu dute, santanetako Gazteen Egunean, 11:00etan.

Zabaldute futbol eskolan izena emateko epea, Elgoibarren

Elgoibar Kirol Elkarteko Futbol Eskolan izena eman nahi dutenek uztailearen 15era arteko epea dute horretarako. 2013, 2014 eta 2015. urteetan jaiotako neska-mutilei zuzenduta dago izenematea,

eta klubak duen APP aplikaziotik egin behar da. Informazio gehiago behar izanez gero, 943 741 949 da bulegoko telefono zenbakia, eta cdekirolartoa@gmail.com helbide elektronikoa.

Ion Fernandezek irabazi du LaRoita erronkaren hirugarren ekitaldia

Herriko dozenaka gazte mugiarazi ditu aurten ere LaRoita kirol erronkak. Jendetza batu zen zapatu goizean Karakate gainean, eta Karakateko igoerako azken metroetan moduan, jende artean egin zituzten saltaka azken metroak hiru lehiakideek. Ion Fernandez mendaroarra izan zen azkarrena. Ordu bat, 25 minutu eta 59 segundoan osatu zuen proba.



Mutrikun hasi zuten lagunarteko erronka, portuan egin zuten 600 metroko igeriketa probarekin. Fernandez irten zen lehen aurretatik eta bizikleta gainean ere eutsi egin zion abantailari. Kalbario mendatea igo eta jaitsi ostean Kalegoen plazaraino joan ziren

bizikletan. Azken lana ez zuten edonolakoa, Karakateko tontorrera igo behar baitzuten. Esan bezala, Fernandez izan zen lehen a, Ander Aranbarrik egin zuen bigarren eta Asier Basurtok hirugarren. LaRoitakoek zuzenean eman zuten erronka Youtuben duten kanaletik. Erronkak herriko kaleetan izan zuen segida, aurtengoa kirol erronka bat baino gehiago izango zela esana baitzuten LaRoitakoek. Eta egitarau osoa prestatu zuten horretarako. Maalan batu eta karropoteoa egin zuten lehenik, Mauxitxa txarangaren laguntzaz, eta 200dik gora lagun batu ziren bazkaritarako. Gaztetxean egin zituzten kontzertuekin eman zioten amaiera egunari. Argazkiak: barren.eus (📷 Josu Atxa).



Mikel Gurrutxaga eta Ainhoa Lendinez gailendu dira Nahaste Borrasten

Azken urteetako parte-hartzaile kopuru handienetakoa izan du Nahaste Borraste kirol probak: 42 parte-hartzaile (31 izan ziren iaz, eta 21, 2019an). Hori bai, parte-hartzaile ilustre baten falta igarri zen irteeran, proba hamar alditan irabazi duen Iñigo Larizena, hain zuzen ere. Hala, ziurra zen izen berri bat gehituko zela irabazleen palmaresera. Eta, Mikel Gurrutxaga Barruetabeña (Elgoibar, 1996) izan da irabazleen zerrendara batu dena, bere hirugarren parte hartzean garaipena eskuratu baitzuen, 17:52ko denborarekin. Orain arte futboleant aritu izan da, eta futbolari esker Finlandia, Estonia edo Lituania moduko herrialdeetako liga txapelketak ezagutzeko aukera izan du azken urteetan. Futbola laga du, eta hala, bere beste pasioa den triatloiar denbora gehiago eskaintzeko aukera izan du. Ainhoa Lendinez Garatek, berriz, hamaseigarren aldiz irabazi zuen Nahaste Borraste. Saikapenak, argazkiak eta bideoa: barren.eus (👤 Asier Orbea / Ainhoa Andonegi)



Eneko Ortegak hirugarren egin du Espainiako Txapelketan

Munduko txirrindulari onenak Euskal Herrian izan ditugu egunotan, Frantziako Tourra jokatzeko, baina dena ez da Tourra. Oinarrizko txirrindularitzan ere jokatu zituzten lasterketak asteburuan eta Elgoibarko Lagun Taldeko Eneko Ortegak Cartagenan (Murtzia, Espainia) gozatu zuen loria, jubenilen Espainiako Txapelketan. Euskadiko selekzioarekin lehiatu zen Ortega, eta bai berak, eta baita haren taldekideek ere lasterketa handia egin zuten domekan. Saillapen nagusiko lehenengo bosten artean Euskadiko selekzioko hiru lagun saillatu ziren, 137 kilometroko proban lehiatu eta gero. Tropeleko azkarrena Alvaro Garcia Gimenez izan zen (Murtzia), 3:37:55ko denborarekin. Haren atzetik Markel Beloki helmugaratu zen, txirrindulari profesionala izandako Joseba



Belokiren semea. 14 segundo eskasera helmugaratu zen Beloki, eta Eneko Ortegak osatu zuen podiuma. Irabazlearengandik 40 segundora helmugaratu zen elgoibartarra, lasterketa handia eginda. Eta podiumetik koska batera gelditu zen Unax Errasti (Euskadiko selekzioa).

Sanlon izena emateko epea, zabalik

Sanlo EKT kirol taldeak jakinarazi du zabalik dagoela 2023/2024 denboraldirako izena emateko epea. Bereziki, 2010, 2011 eta 2012 urteetan jaiotako neska-mutilei egin diete taldera batzeko deia, infantil eta alebin taldeak osatu ahal izateko. Sanlotik adierazi dutenez, ondo pasatzeko eta adin bereko kideekin

taldean jolasteko gogoia duten umeentzat aukera paregabea da. "Kirol zoragarri bat ezagutzeko aukera izateaz gain, Gipuzkoako beste herri batzuetako taldeen aurka jokatu eta lagun berriak egiteko aukera izango dute". Inskripzioa sanlo.net webgunearen bidez egin behar da.

Elgoibar Hiria emakumezkoen txirrindularitza lasterketa, domekan



Emakumeen Ordiziako Klasika izango da Gipuzkoa Women Itzuliko lehen etapa, zapatuan, uztailaren 8an. Eta, biharamunean, domekan, jokatu dute bigarren etapa: Elgoibar Hiria Emakumezkoen I. Saria, Elgoibarko Lagun Taldea txirrindulari eskolak eta Gipuzkoako federazioak antolatuta. Antolatzaileek ohartarazi dute jendea behar dutela bidegurutzeak zaintzeko eta prest daudenei eurekin harremanetan jartzeko eskatu diete [646 265 862 / elt_tx@hotmail.com]. 57,5 kilometroko ibilbidea egin beharko dute txirrindulariek. Lasterketa Mintxetan hasiko da, 16:00etan, eta bukatu ere bai. 17:25 ingururako amaitzea aurreikusten dute antolatzaileek.



Jai Batzordeko kideak.



IBAN QUINTANA

Urazandiko jai batzordekoa

✍ Ainhoa Andonegi / 🗣 Asier Orbea

40 urteko etenaren ostean iaz berreskuratu zituzten Urazandi auzoko jaiak, eta auzotarrek zein herritarrek harrera beroa egin zieten jaiak. Jaiak izan zuten arrakasta ikusita, antolatzaileek ez zuten dudarik eduki, eta aurten segida izango dute. Gogor lan egin du jai batzordeak urte osoan zehar aurtengo egitaraua prestatzeko. Zazpi lagun ibili dira antolakuntzan, baina horiez gain, boluntario sare handi bat daukate bueltan, asteburuak bete-betea datorrelako. 19:00etan hasiko dira jaiak, Urazandi okindegikoek botako duten txupinazoarekin, eta domeka arte ekitaldi ugari izango dituzte auzoan. Iban Quintana jai batzordeko kideak egin digu asteburuak emango duenaren aurrerapena.

“Iazko akatsetatik ikasita, egitarau bete prestatu dugu aurtengo jaietarako”

40 urteko etenaren ostean, iaz berreskuratu zenituzten Urazandiko jaiak. Nola hartu zituen jendeak?

Oso ondo. Dena ondo irten zen eta auzotarrak oso pozik geratu ziren. Bi-hiru urtez egin ziren jaiak lehen, baina auzotarrek

oso gogoan zituzten, eta sekulakoa izan zen. Parkean geundela hasi ginen festak berreskuratu behar genituela pentsatzen, eta azkenean lortu genuen. Gainera, adin guztietako jendearentzako jaiak izan ziren, eta oso gustura geratu ginen. Ez genuen

dena ondo egin, eta aurten, oker egindakoak hobetzen saiatu gara. Egitarau bete-betea prestatu dugu. Iruñeko Sanferminak eta Amañako jaiak asteburu berean izanda, konpetentzia daukagu, baina hala ere, jende pila bat ibili zen iaz.

Asteburuan izango dugu jaien bigarren edizioa. Dena prest astebururako?

Bai, egitaraua prest daukagu, baina eguraldia ez dago gure esku eta azken egunetan etengabe ari gara eguraldi iragarpenari begira. Eguraldi ona egiten badu, jende gutxiago etorriko da, eta guretzako garrantzitsua da jendea etortzea. Lan handia egin dugu urte guztian zehar, eta orain herritarrek parte hartzea behar dugu. Bilera asko egin ditugu dena antolatzeko. Zazpi lagun gaude jai batzordean, batzuk gainera berriak sartu dira aurten, eta justuan ibili gara. Lanak banatu ditugu, baina agian hiru bat lagun gehiago beharko genituzke. Asteburuan bertan laguntzeko jende asko agertu da prest, boluntario asko dauzkagu lan puntualak egiteko: barran lan egiteko, mahaia prestatzeko, paella banatzeko... Hori eskertzekoa da, hori gabe ez legokeelako jairik, baina urte guztian zehar egin behar da lan jaiak antolatzeko.

Zein berrikuntza izango ditugu aurtengo egitarauan?

Iazko jaietatik dirua geneukan aurreztuta, beraz, aurten hobekuntzak egin ditugu egitarauan. Iazko akatsetatik ikasi dugu, eta egitarau bete-betea prestatu dugu. Iaz esan ziguten helduentzako erromeriaren bat falta izan zela, eta aurten sartu dugu zapatuko bazkalostean. Tarte hori huts samar geratu zitzaigun iaz, eta jende asko herrira jaitsi zen. Aurten Mauxitxa txarangakoak gonbidatu ditugu bazkaritara, eta beraiek girotuko dute bazkaria. Eta ondoren, karaokea eta dantzaldia egongo da, jendea ez dadin auzotik joan. Horrez gain, konturatu ginen afaltzera jende asko kalera jaitsi zela, auzoan ez dagoelako hainbeste jenderi afaltzen emateko aukerarik. Horietako asko gero ez ziren berriz auzora igo, beraz, aurten horrelakorik ez gertatzeko, *food truck* estiloko furgonetak egongo dira, jendeak bertan afaltzeko aukera izan dezan. Kontzertuak ere sartu ditugu

"Sari, zozketa eta opari pila bat izango ditugu aurten. Eskerrak eman nahi dizkiet laguntzaile eta babesle guztiei, haien laguntza ezinbestekoa izan delako"

ostiral gauean. Amildegi taldeak joko du, eta pentsatzen dugu horiek ikustera etorriko direla gazteak. Igande goizean umeentzako jolasak eta puzgarriak egongo dira, eta zozketa pila bat. Iaz oso ondo pasatu zuten umeek, eta hori ikusita aurten ume gehiago etortzea espero dugu. Nire ustez oso polita izan zen domeka goiza; umeen ilusio aurpegiak ikusteak beti ematen du poza.

Egitarauko ekintzez gain, zozketak, sariak eta sorpresak iragarri dituzue.

Bai. Errifak jarri ditugu salgai, eta produktuz betetako bi otarre zozkatuko ditugu. Iaz bakarra izan genuen, eta motz geratu zelakoan, aurten bi jarri ditugu. Horrez gain, auto klasikoen erakustaldian parte hartzen dutenen artean eta opariak zozkatuko ditugu, eta baita paella janera etortzen diren guztien artean ere. Era berean, igel-toka, txabes eta txapel jaurtiketan ere sariak egongo dira, eta baita patata tortilla lehiaketan ere. Umeei goxoki zorro bana banatuko diegu, eta globo festa bat ere egongo da beraientzat. Globoen barruan sariak egongo dira, eta sari batzuk oso onak izango dira gainera. Zapatu goizaldean ere sorpresaren bat izango dugu. Eskerrak eman nahi dizkiegu sari eta opari hauek guztiak lortzeko laguntza eman diguten babesle eta laguntzaileei. Aurten asko izan dira, eta haien kolaboraziorik gabe ezin izango genuke. Eskerrak eman behar dizkiegu baita ere jaietan parte hartuko duten herritar guztiei. Pena daukagu azkenean barrakarik ez delako egongo, baina datozen urteetarako saiatuko gara barrakak ekartzen.

Animatu herritarrek Urazandiko jaietara.

Iaz giro bikaina izan genuen, eta aurten hobeago izango da. Primeran pasatuko dugu.

'Gararock parkean', datorrenaren aurrerapena

Bezperan egindako euriagatik Herriko Enparantzara aldatu behar izan zuten Azpilgoetako Santa Kuzkuan egitekoa zuten *Gararock parkean* jaialdia barikuan, baina gainerakoan, aurreikuspen guztiak bete egin ziren, eta balorazio positiboa egin zuten antolatzaileek, sortu zen giroa ikusita. Herriko Enparantzaren izanda, bestela Azpilgoetara joango ez zirenak ere batu ziren kontzertuak ikustera eta itxura polita hartu zuen plazak. Ezer baino lehen, baina, irailaren 23ko Gararockeko kartela aurkeztu zuen Gararock taldeko Josu Iriondok. Irailekoan bost talde izango direla aurreratu zuen: Ithaka, Magia Bruta, Rukula, Sua eta Doctor Explosion talde asturiarra. Jaialdia Amorantek hasi zuen,



ohi duen eran, eta Carlos Cebrian *Cebri* taldekide izan zutenaren oroimenez jardun ziren gero The Brian Valeta Movementekoak, lagunez inguratuta. Itxi, berriz, Bikustikek itxi zuen jaialdia. Orubete pasako kontzertua eman zuten Patxi Zabaleta eta Jon Gurrutxagak eta gogotik gozatu zuen publikoak guztiekin. Argazkiak: **barren.eus**.

'Una veterinaria en Borgoña' filmarekin hasiko da gaur aire libreko zinea

Gaur hasiko dituzte Elgoibarren aire libreko zine emanaldiak. Emanaldi guztiak Kalegoen plazan izango dira, 22:30ean. *Una veterinaria en Borgoña* film frantziarra emango dute gaur, Julie Manoukianek zuzendutako filma. Bazkide duen Michaelek erretiroa hartzen duenean Nico izeneko albaitari borgoñarrak albaitegia eta hango animaliak salbatzeko hasiko duen borrokaren berri ematen du filmak.



Bihar, berriz, *El colegio de los animales mágicos* emango dute. Gregor Schnitzler zuzendari alemaniarrek zuzendutako filma da, iaz Alemanian sari bat baino gehiago eskuratu zituen. Herrian berria den eta lagunak egiteko zailtasunak dituen Ida izeneko neskatila da

protagonista. Egun batean animalia bat lagun hartzeko esango die irakasleak ikasleei eta Idak Rabbat azeria aukeratuko du eta haren ikaskideetako batek Henrietta dortoka. Animalia bereziak dira filmeko biak, besteak beste hitz egiteko gai direlako.

San Roke jaiak uztailaren 28-29ko asteburura aurreratu dituzte Elgoibarren

Abuztuaren 16a da berez San Roke eguna, baina Elgoibarko Azkue auzoan jaiak uztailean aurreratzea erabaki dute, jaiak antolatzeko dituzten zailtasunengatik. Dena den, San Roke eguneko meza mantenduko dute egunean bertan eta ondoren salda eta txorizoa ere banatuko dituzte. Jaiak, baina uztailaren 28-29ko asteburuan ospatuko dituzte. Hilaren 28an,

17:00etan, hasiko dituzte jaiak kanpai jotzearekin eta umeentzako jolasak eta lagunarteko afaria izango dira lehenengo eguneko ekintza nagusiak. Jaietako bigarren egunerako, berriz, toka txapelketa, txapel jaurtiketa, txokolatada, haurrentzako zezentxo eta poniak, auzotarren bazkaria, eta Baltzola anaiekin erromeria lotu dituzte.

Asteburu betea izan dute Idotorben

Eguenean hasi zituzten jaiak Idotorben, eta ekintzaz beteriko asteburua izan dute. Zapatu arratsalderako haurrentzako ekintzak zituzten iragarriak, tartean Niala magoaren ikuskizuna eta Rusoren animaliak, eta autobusa ere izango zela esana zuten. Eta jendeak ez zuen arratsalde eder bat pasatzeko aukera galdu. Familia ugari elkartu ziren arratsalde-iluntze partean Idotorben. Gauean, erromeria ere izan zuten Bide Batez taldearekin eta luzatu zuten gaua Baltzola eta Andonegi soinu-joleek.

Domeka goiza tristeago esnatu zen, baina eguraldiak ez zuen festa zapuztu. Bolo txapelketa jokatu zuten eta Iñigo Loiola auzotarrak jantzi zuten txapela. Bigarren Arkaitz Rodriguezek egin zuten eta hirugarren, Julian Loiolak. Ez zen, ordea, jaietan izan zen norgehiagoka bakarra izan. Bariku iluntzean, mus txapelketa ere jokatu zutelako. Xabier Loiolak eta Edu Sanzek osatutako bikotea gailendu zen, Luis Kortaberriak eta Iñaki Mancisidorrek egin zuten bigarren eta Iñigo Loiolak eta Unai Loiolak hirugarren. Errifaren zozketan Amaia Rodriguez Miguelek irabazi du produktuz beteriko orgatila. Argazki gehiago: barren.eus



LANA

Eskaerak

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. **697 958 198**

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak zaintzeko prest nago. Gaez lan egiteko prest. **666 493 717**

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. **632 881 068**

Uztailean eta abuztuan lanean jarduteko prest nago. Umeak zaintzen edota ingeleseko klaseak ematen. Ingeles maila ona dut. **627 417 833**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka. Opor garaian lan egiteko prest nago. **631 425 686**

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago, orduka. Esperientzia daukat. Ospitalean zaintza lanak egiteko ere prest nago. Erizain laguntzaile titulazioa daukat. **660 511 781**

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Erizaintza ikasi dut eta titulu soziosanitarioa daukat. Esperientzia handia. **643 505 662**

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan, etxeko langile moduan. **644 943 297**

Zaintza lanak egingo nituzke gauetan, bai ospitaleetan eta baita etxeetan ere. **632 229 972**

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Titulu soziosanitarioa daukat, baita esperientzia ere. **602 592 092**

Eskaintza

Batxillergo zientifikoko bigarren mailako ikasle batek datorren ikasturterako Matematika eta Kimikako eskolak jasotzea nahiko luke. **669 339 529**

6 eta 9 urteko bi ume zaintzeko pertsona behar dugu. Uztailak 10etik uztailak 21era, eguerdiko 13:00etatik 16:30era. **616 106 260**


Matematika eta Fisika eskola partikularrak emateko pertsona behar dugu, selektibitateko prestatzeko. **632 229 972**

BESTELAKOAK

90eko bi koltxoi, bi kanape eta neurrira eginiko bi edredoi salgai. Estrenatu gabe. **943 741 646**

| | |
|--|---|
|  <p>administradores Consejo Técnico de Colegios de Administradores de Empresas Euzko Eskola Adrestituzionalen Lantze-erakundeak</p> <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p> | <p>Eraikin bateko lokal baten jabea naiz. Orain arte saltoki gisa alokatuta neukan, eta orain, taberna izateko alokatuko dut. Errentari berriak telebistako antenaren hargunea behar du, eraikin osorako orokorra dena. Nire lokalak antena hargunerik ez duela konturatu naiz, orain arte ez baita horren beharrik izan. Komunitateko presidenteari eskatu diot zerbitzu hori, eta ukatu egin dit eskatzeko eskubidea. Jakin nahi nuke ea telebista-antenaren hargunea izan dezakedan.</p> <p>Telebista antena eraikinaren elementu komun maila duen instalazioa da. Horrek ez du eragozten, estatutuetan besterik aurreikusi ezean, lokalek hasiera batean ez izatea antenak ematen duen seinaleaz baliatzeko behar den instalazioa. Era berean, ez litzateke oztopo izango antena jartzea lokaletara ez iristea, ibilbidea lehen solairuan amaitu delako adibidez. Egoera hori sarri ematen da merkataritza lokaletan.</p> <p>GOMENDIOA: Gomendioa. Zuk planteatzen duzun eskaera eraikinaren elementu komunetako batez baliatzeko duzun eskubidea baliatzea da. Erkidegoak eskubide hori betetzeko betebeharra du, eta inork ezin dizu eskubide hori kendu. Beraz, hori egiteari uko egitea bidegabeba ez izateaz gain, legez kanpokoa ere bada.</p> <p>ASERENA GOXR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p> |
|--|---|



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak gure etxeko printzesari, igandean 6 urte potolo egingo dituelako. Muxu handi bat denon partez.

Zorionak, **Lara**, uztailaren 5ean 9 urte bete zenituelako, eta zorionak zuri ere, **Danel**, abuztuaren 7an 11 urte beteko dituzulako. Muxu asko familia guztiaren partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

RPS 181/19



KONTSULTATEGIA

“ *Uda honetan zure irribarrea inoiz baino liluragarriagoa!* ”

Zatoz Aldaz Hertz Klinikara eta eskatu zure hortzetarako zuritze tratamendua!

ERAKUTSI ZURE
IRRIBARREA UDA
HONETAN
% 50
HORTZ ZURIKETA
335€ besterik ez



Zoom txuritze tratamenduaren eskaintza honi esker, **335€ren truke**, hortzak txuriago eta distiratsuago izatea lortuko duzu saio bakar batean. Uztaileko eta abuzturako balioa du eskaintzak. Ez galdu zure irribarrea nabarmentzeko eta konfiantzaz eta distiraz betetako udaz gozatzeko aukera hau!

ALDAZ HORTZ KLINIKA
San Bartolome, 22 - 20870 Elgoibar
iyd@dentalaldaz.com
943 366 377

7 BARIKUA

18:30 Kafe tertulia: '7. artea'. Haizeak antolatuta, Lilan. Doan izango da, eta ondoren mokadutxo egingo dute.

19:00 Sanloren urteko batzar nagusia. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

22:00-02:00 Ultratrail lasterketari ongi-etorria. Azkaraten.

8 ZAPATUA

10:00 Saskibaloia festa. Kalegoen plazan.

9 DOMEKA

15:15 Eliteko txirrindulari emakumezkoen lasterketa. Mintxetan hasi eta amaituko da.

10 ASTELEHENA

16:00 Zaintzako eta etxez etxeko lanei buruzko aholkularitza zerbitzua. Merlin Medinak emango du, Lilan. Hitzordua beharrezkoa: 688 640 983

elgoibarzaintza@gmail.com

21:00 Santanetako nagusien danborradako entsegua, Mendaroko frontoian.

11 MARTITZENA

19:30 Santanetako umeen danborradako entsegua, Mendaroko frontoian.

12 EGUAZTENA

11:30 Manifestazioa: Greban dauden kiroldegiko monitoreen alde. ELA sindikatuak deituta, Olaizaga kiroldegitik abiatuko da.

13 EGUENA

18:00 Garagardo azokaren irekiera Mendaron. Egitarau osoa erreportajejan.

19:00 Hausnarketa saioa. Isiltasunaren Eskola. Kultur Etxeko sotoan.

Aire libreko zinea Kalegoen plazan, 22:30



'Una veterinaria en Borgoña'
7 barikua

'El colegio de los animales mágicos'
8 zapatua

'Dantza'
14 barikua

2023ko botika ordutegiak: 09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

OHARRA: 2023an ez da iluntzeko farmazia zerbitzurik egongo Elgoibarren.

UZTAILA

7 BARIKUA
8 ZAPATUA
9 DOMEKA
10 ASTELEHENA
11 MARTITZENA
12 EGUAZTENA
13 EGUENA
14 BARIKUA

Egunez

■ Ibañez
Arriola
Arriola
Arriola
■ Fernandez
Yudego
■ Oruesagasti
Barrenetxea

2023 urte guztian, gaeuz: 22:00-09:00
Cristina Sanchez Castaño - Julian Etxeberria, 7 (Eibar)
943 203 052

■ Fernandez:
Herriko Enparantza,4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

■ Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

■ Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

URAZANDIKO JAIAK



UZTAILAK 7, BARIKUA

19:00 Jaiei hasiera emango dien traka. Urasandi okindegikoeak botako dute txupinazoa.

Ondoren, txapel, txabes eta igel toka txapelketa. Herri Eskolan.

20:00 - 23:00 Kontzertuak: Amildegi, The Pladoures eta Ekinocio.

UZTAILAK 8, ZAPATUA

10:00 Auto klasikoaren kontzentrazioa. Herri Eskolan.

11:00 Historiaurreko teknikak eta bizimoduaren erakustaldia, Jose Julian Marquezen eskutik.

12:00 Mauxitxa txaranga.

14:30 Herri bazkaria, Mauxitxak girotuta.

16:30 Dantzaldia eta karaokea.

17:00 Buruhandiak.

18:30 El Bille. Flamenko fusioa.

21:00 DJ Tilla.

Goizaldean, apar festa

UZTAILAK 9, DOMEKA

11:00 Jolasak, puzgarriak, koltxonetak, patata tortilla lehiaketa... Herri Eskolako patioan.

12:00 Irati, zirku tailerra.

16:00 Jaien amaierako traka.



AUZO KOMUNITATEENTZAKO AUTOKONTSUMO KOLEKTIBOAREN kudeaketan eta instalazioan espezializatutako enpresa gara eta gure herri eta hirietako etxebizitza motara hobekien egokitzen diren irtenbideak eskaintzeko prest gaude. TKSOLen proiektua burutzeko behar diren prozedimentu guztietaz arduratzen gara, eta aste gutxian amaitzen ditugu lan denak.

AUTOKONTSUMO FOTOVOLTAIKO KOLEKTIBOIA: Autokontsumorako modalitate honetan, etxeko teiltatuan instalazio bakar bat jarrita, instalazio komunitario bat alegia, etxe horretan bizi diren bizilagunek eta kasu askotan baita etxe mugakideetakoek ere jaso dezakete onura.

TKSOLetik Elgoibar eta Mendaroko bizilagunak animatu nahi ditugu galderak egitera eta kasu bakoitzerako irtenbiderik onena zein den galdetzeraz. TKSOLen etxearen azterketa bat egingo dizugu, eta behar izanez gero, bizilagunen batzarrean aurkezteko prest ere bagaude. Gainera, aurten, urte amaierara arte jartzen diren instalazio guztietarako indarrean izango dira EEERen (Energiaren Euskal Erakundea) dirulaguntzak; ez galdu aukera, beraz! TKSOLen dirulaguntzen kudeaketaz eta administrazio-izapidetzeaz arduratzen gara.

GOGORATU AUTOKONTSUMO FOTOVOLTAIKOIA KONPONBIDE ERGINKOR, JASANGARRI ETA PARTE-HARTZAILEENA DELA!



Hemendik eta urte amaierara arte Elgoibar eta Mendaron egiten ditugun instalazioetan, DOAN egingo ditugu hurrengo 3 URTEETAKO mantentze lanak!

Aita Agirre plazan egindako proiektu komunitarioaren irudia.

San Antolin kalea 1 - Elgoibar
943 323 710



Nagore Cancio



Maria Gertrudis Aranguena Gabiola

2023ko ekainaren 28an hil zen, 84 urte zituela.

Betirako gurekin.

Maite zaitugu.

Eskerrik asko.

Etxekoak

Senideek bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

Maria Dolores Astigarraga Barruetabeña

2022ko uztailaren 7an hil zen, 83 urte zituela.

***Zure irribarreak eta zure sormenak
egunero inspiratzen gaituzte,
eta zure nortasunak familia gisa batzen gaitu.***

Maite zaitugu, amama.



ETXEBERRIA
EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberrria.com
www.funerariaetxeberrria.com

**Kutzak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.**

GREEN MI OEN GIDA



LEIHOAK

LODOSO LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIALDEA, 223
lodosofj@gmail.com
943 743 490

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
 Pedro Migel Urruzuno, 8
943 740 512
 Faxa: 943 743 565
 tienda@pagoagasa.com
 www.pagoagasa.com

BILTEGIA
 San Antolin, 13 - ELGOIBAR
 taller@pagoagasa.com
943 740 279

AROZTEGIA

BIENA S.L.
AROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
 tel/fax. 943 743 116
 www.biena.eus
 info@biena.eus

PINTURA

BIODK
 dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar
943 741 552
606 431 120
 biok@biokdekorazioa.com

ITURGINTZA

SANTANA

Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea, 17, behea
 Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
 santanaiturgintza@gmail.com

AROZTEGIA

iraolagoitia

aroztegia - altzariak - ebe-aldaketak
 Kurutz-gain Industrialdea, 9
 20850 Mendara
943 756 112
636 497 485
 www.iraolagoitia.com

ELEKTRIZITATEA

egoluz
 ELEKTRIZITATEA S.L.

Andres: 630 957 345
677 512 462
 Pedro Migel Urruzuno, 14 behea
 20870 ELGOIBAR

Bulegoa: **943 200 697**
 ego.luz@hotmail.com

IZURRIEN KONTRAKO TRATAMENDUAK

PLAGANATURA

Ondakuntza Sakal Ambiental

618 198 760
 ivan@plaganatura.eus
 www.plaganatura.eus

AROZTEGIA

IMAR
AROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
 carpinteriaimar@hotmail.com
 @carpinteria_imar

Gidan agertzearen onurak!

23,10€ hilan
12 aliz urtean
4.885 ale astero

22 Eren truke, hileru, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu **BARREN** astekarian.

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleiho ikusiena.

4.885 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron **DOAN**.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.

943 743 704
688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturgunea, 3. 3. ezk
 20870 ELGOIBAR